



ORIOKUDALA

## AKTA

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**Eguna:** 2024ko urriaren 30a, asteazkena.

**Tokia:** Udalbatzarraren aretoa

**Ordua:** Hasteko ordua: 19:30

Bukatzeko ordua: 21:15

### BERTARATUAK:

#### **Alkatea**

Anuska Esnal Oliden

#### ***Zinegotziak***

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Macazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua

Iosu Lizarralde Ibarbia zinegotziak, udal honetako EH-Bildu talde politikoko kideak, adierazi du ezin zela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

#### ***Idazkari-kontu-hartzailea***

Jon Carrera Jauregi.



## **GAI-ZERREDA**

1. 2024ko hirugarren hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
2. 2024ko udal-aurrekontuaren hirugarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
3. Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 6/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, kredituak deuseztatzeagatiko bajen modalitatean.
4. Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal aurrekontu propioaren 7/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, kreditua transferitzeko modalitatean.
5. Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal aurrekontu propioaren 8/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.
6. Adjudikatzea, egoki bada, Orioko kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitze obraren kontratazioa prozedura ireki sinplifikatu baten bidez.
7. Onartzea, egoki bada, klausula partikularren plegua, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren barruko «Zabalgunea» izeneko 3. eremuko «3.1. Frontoia» jarduketa-unitateko 1.1. partzelaren partaidetza zatiezin bat (% 20,32) lehiaketa publiko bidez besterentzeko.
8. Onartzea, egoki bada, uraren ziklo osoaren kudeaketarako agindua, eta Orioko Udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren artean horretarako sinatuko den hitzarmena
9. Onartzea, egoki bada, klausula administratibo partikularren eta baldintza teknikoen pleguak, Orioko Udalaren kirol-instalazioetako kirol-zerbitzuen eta zerbitzu osagarrien kontratuaren lizitazioa arautuko dutenak.
10. Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko erregelamenduari.
11. Eskariak eta galderak.



## **BAT.- 2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak 2024ko ekitaldi ekonomikoaren laugarren hiruhileko berankortasun-txostenaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

## **BI.- 2024KO UDAL-AURREKONTUAREN HIRUGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.**

Udalak 2024ko ekitaldi ekonomikoaren hirugarren hiruhilekoaren exekuzio-egoeraren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

## **HIRU.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 6/2025 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI, KREDITUAK DEUSEZTATZEAGATIKO BAJEN MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakin du. Udalaren aurrekontu propioaren 6/2024 zenbakidun espedientea kredituak deuseztatzeagatiko bajen modalitatean egina dago eta **28.950 euroko** zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko urtarrilaren 25ean emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren aurrekontu propioaren 2024ko ekitaldi ekonomikoko 6/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kredituak deuseztatzeagatiko bajen modalitatean egina dago eta zenbateko hau du: **HOGITA ZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR (28.950 €) EURO.**



**2.-JENDAURREAN JARTZEA** adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

**a) Ikusgai dagoen lekua:** Idazkaritza-Kontuhartzailletza.

**b) Espedienteaz aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesdunak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espediente behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## **LAU.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 7/2024 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakin du. Udalaren aurrekontu propioaren 7/2024 zenbakidun espediente kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta **82.310** euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko urriaren 25ean emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:



**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren aurrekontu propioaren 2024ko ekitaldi ekonomikoko 7/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta zenbateko hau du: **LAUROGEITA BI MILA HIRUREHUN ETA HAMAR (82.310€) EURO.**

**2.-JENDAURREAN JARTZEA** adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

**a) Ikusgai dagoen lekua:** Idazkaritza-Kontuhartzailletza.

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesdunak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**BOST.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 8/2024 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 8/2024 zenbakidun espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta **134.000** euroko zenbatekoa du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko urriaren 25ean emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2024ko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontu propioaren 8/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta zenbateko hau du: **EHUN ETA HOGETA HAMALAU MILA (134.000€) EURO**.

**2.-JENDAURREAN JARTZEA** adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

**a) Ikusgai dagoen lekua:** Idazkaritza-Kontuhartzailletza.

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesdunak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



## **SEI.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KANPINEAN AISIALDIKO IGERILEKUA ETA UR-PARKEA ERAIKITZEKO OBRAREN KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BATEN BIDEZ.**

Udalbatzarrak adjudikazio-proposamenaren berri izan du, Orioko kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeke obrak prozedura ireki sinplifikatu bidez kontratatzeke.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta kontratazio publikoko mahaiak proposatuta eta gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH-BILDU), Santamaria (EH-BILDU), Ibarguren (EH-BILDU), Munduate (EH-BILDU), Andres (EH-BILDU), Makazaga (EH-BILDU), Solabarrieta (EH-BILDU), Rementeria (EH-BILDU) eta Alguacil (EH-BILDU) guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira, **HIRU ABSTENTZIO**]:

**ESLEITZEA ALPE POOLS** erakundeari Orioko udal-kanpinean uretako aisialdirako gune bat eraikitzeke obren kontratua, baldintza ekonomiko-administratiboen eta baldintza teknikoen agirietan ezarritakoa betez, eta enpresa esleipendunak berak aurkeztutako proposamenean adierazitako baldintzetan.

Kontratuaren prezioa 1.028.000 eurokoa da (% 21eko BEZa kontuan izan gabe).

Emandako botoak azaltzeko txandan, Lohitzune Solabarrieta zinegotziak hartu du hitza, EH-Bilduren izenean eta hura ordezkatzuz, eta adierazi du osoko bilkura honetan azkenean lortu dela Orioko udal-kanpinean uretako aisialdirako gune bat eraikitzeke obren kontratua esleitzea, 3 urteko ibilbidea egin ondoren, azken helburua izanik igerileku klimatizatu bat eraikitzea, kanpinaren desestazionalizazioa lortzeko eta erabiltzaile gehiagok eta hilabete gehiagotan erabili ahal izateko. 2019-2023 udal-legealditik datorren gaia da, eta harro dago bere talde politikoak izan duen jarrerarekin eta koherentziarekin; izan ere, une oro borrokatu du igerilekuen egungo kokapen ilun eta hezearen ordezkari gaur egun proiektatuta dagoen eremuan jartzeko, eguzkitsuagoa baita, eta nabarmendu du erreferentziako gaia aurreko legealdian onartu zela, udalbatzako kideen aho bateko erabakiz.



Jarraian, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartu du hitza, EAJ-PNVren izenean eta ordezkaritza, eta adierazi du aurreko udal-legealdian udal-kanpinean igerileku berriak eraikitzeari buruzko gaia aho batez onartu bazen ere, legegintzaldi honetan aukera berriak aztertu direla, bai ekonomikoak bai bestelakoak, eta ildo horretan, gutxienez hiru aukera aztertu direla, eta azkenean onartutako aukeran, nabarmendu behar da udal-kanpineko erabiltzaileentzako plazak galdu direla.

Azkenik, Anuska Esnal alkateak (EH-Bildu) hartu du hitza, eta esan du gaur egun udal-kanpineko igerilekuak erabiltzaile gutxi erabiltzen dituztela, eremu ilun eta hezean baitaude, eta horrek gaur egungo kokapena aldatzera behartzen du, gune eguzkitsuago batera eramatea, erabiltzaileen kopurua handitzeko, batetik, eta udatik kanpo erabili ahal izateko, bestetik.

**ZAZPI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BARRUKO "ZABALGUNEA" IZENeko 3. EREMUKO «3.1. FRONTOIA» JARDUKETA-UNITATEKO 1.1. PARTZELAREN PARTAIDETZA ZATIEZIN BAT (% 20,32) LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ BESTERENTZEKO.**

Udalbatzarrak klausula partikularren berri izan du, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren barruko "Zabalgunea" izeneko 3. eremuko "3.1. Frontoia" jarduketa-unitateko 1.1. partzelaren partaidetza zatiezin bat (% 20,32) lehiaketa publiko bidez besterentzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Tokiko Garapena batzordeak 2024ko urriaren 11n emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** klausula partikularren plegua, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren barruko "Zabalgunea" izeneko 3. eremuko "3.1. Frontoia" jarduketa-unitateko 1.1. partzelaren partaidetza zatiezin bat (% 20,32) lehiaketa publiko bidez besterentzeko.





Emandako botoak azaltzeko txandan, Olatz Santamaria (EH-Bildu) lehen alkateordeak hartu du hitza, eta adierazi du erreferentziazko gaia urte askoan korapilatuta egon dela eta orain askatu egin direla korapilo horiek, eta horrek Oriko udalerriaren ongizate komunitarioa hobetuko duela, eremu degradatua baita, eta egungo frontoia eraisteak eta, horren orde, neurri txikiagoko frontoi berri bat egiteak hobekuntza garbia dakar.

## **ZORTZI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, URAREN ZIKLO OSOAREN KUDEAKETARAKO AGINDUA, ETA ORIOKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ARTEAN HORRETARAKO SINATUKO DEN HITZARMENA**

Udalbatzarrak gaiaren berri izan du. Uraren ziklo osoaren kudeaketarako agindua da, eta Oriko Udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren artean hitzarmena sinatuko da horretarako.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Tokiko Garapena batzordeak 2024ko urriaren 11n emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

**1.- ONARTZEA** uraren ziklo osoaren kudeaketarako agindua Oriko Udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren artekoa, eta hori arautzen duen hitzarmena.

**2.- AHALMENA EMATEA** alkate-udalburuari aipatutako hitzarmena sinatzeko, Oriko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

## **BEDERATZI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK, ORIOKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOETAKO KIROL-ZERBITZUEN ETA ZERBITZU OSAGARRIEN KONTRATUAREN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTENAK.**



Udalbatzarrak klausula administratibo partikularren eta baldintza teknikoen pleguen berri izan du, Orioko Udalaren kirol-instalazioetako kirol-zerbitzuen eta zerbitzu osagarrien kontratuaren lizitazioa arautzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2024ko urriaren 18an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** klausula administratibo partikularren eta baldintza teknikoen pleguak, Orioko Udalaren kirol-instalazioetako kirol-zerbitzuen eta zerbitzu osagarrien kontratuaren lizitazioa arautuko dutenak.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Noemi Ostolaza zinegotziak hartu du hitza, EAJ-PNVren izenean eta haren ordezkari gisa, eta adierazi du bere talde politikoaren ustez oso garrantzitsua dela Orioko Udalaren kirol-instalazioetako kirol-zerbitzuen eta osagarrien kontratuaren lizitazioa. Horrela, bada, erreferentziako lizitazioa esleitzen denean, Orioko Udalak eztabaidatu eta ebatziko ditu udalaren kirol-instalazioen erabilerari buruzko prezio publikoak.

Ondoren, Inaxio Alguacil zinegotziak (EH-bildu) hartu du hitza, eta adierazi du Orioko Udalaren kirol-instalazioetako kirol zerbitzu eta osagarrien kontratu baten lizitazioa dela aztergai duguna. Kontratu horren balio zenbatetsia altua izango da, eta akuilu izango da Orioko udalerrian erreferentziazko kirol-zerbitzuak emateko, eta azterketa luze eta sakon baten eta bi txosten egitearen ondorio dela. Txosten horietan azterlanak eta diagnosiak egiten dira ikuspegi ekonomiko eta juridikotik, eta ondorioztatzen da iraunkortasun ekonomikoa dagoela, eta horrek aukera emango duela kirol-zerbitzuen kalitatea eta autofinantzaketa orekatzeko, gaur egun egoera ekonomiko oso defizitariora baita.



Era berean, Inaxio Alguacil zinegotziak adierazi du Orioko udal-kiroldegian energia aurrezteko sistema batzuk jarri direla; hainbat lankidetzeta-hitzarmen sinatu direla herriko kirol-erakundeekin, eta gauza bat azpimarratzekoa dela, aldaketa garrantzitsuena hau dela: aurrerantzean, Orioko Udalak zuzenean kudeatuko ditu Udalaren kirol-instalazioak, haien kontrola zuzenean bere gain hartuta, eta horrek guztiak aipatutako kirol-instalazioen kudeaketa eta kontrola hobetzea ekarriko du.

Azkenik, Inaxio Alguacil zinegotziak nabarmendu du Orioko Udalaren kirol-instalazioetako kirol-zerbitzuen eta osagarrien kontratuaren lizitazioa arautuko duten administrazio klausula berezien pleguak eta baldintza teknikoen pleguak onartuta, aukera izango dela udal-kiroldegia irekitzeko eta ixteko ordutegiak hobetzea astelehenetik ostiralera, eta eguerdian irekita egongo dela, eta kontratari atxikitako langileen subrogazioa aurreikusten del. Eta eskertu egin behar dela Udaleko EAJ-PNV talde politikoak osoko bilkura honetan izandako jarrera, aipatutako pleguak onartu baititu.

Azkenik, Jon Basurko zinegotziak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta eskerrak eman dizkie parte-hartzaileei, Orioko Udalaren kirol-instalazioetako kirol-zerbitzuen eta osagarrien kontratuaren lizitazioa arautuko duten administrazio-klausula partikularren pleguak eta baldintza teknikoen pleguak onartzeko egindako lanagatik.

## **HAMAR.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ERREGELAMENDUARI.**

Udalbatzarrak Orioko Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko erregelamenduaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2024ko urriaren 18an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**



**ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko erregelamenduari.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** erregelamendu hori, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, interesatu guztiek udal honetako Udalbatzarraren aurrean erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Epe hori igarota, aipatutako erabakiari buruzko erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, aipatutako erregelamendu hori behin betiko onartutzat joko da, Udalbatzarrak beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Noemi Ostolaza zinegotziak hartu du hitza, EAJ-PNVren izenean eta ordezkaritza, eta adierazi du une honetan behar bezala arautuko dela Orioko Udalaren kirol-instalazioen erabilera, eta, aldi berean, adierazi du bere talde politikoari hasiera batean ez zitzaiola egokia iruditzen erreferentziako araudia, baina, egia esan, egokitzapenak egin direla hartan, udal-gobernuaren eta EAJ-PNV taldearen arteko lan bateratuaren ondorioz, eta Orioko udalerriko kirol-instalazioen erabiltzaileen mesederako izango direla.

Azkenik, Inaxio Alguacilek (EH-Bildu) hartu du hitza, eta adierazi du Orioko Udalaren kirol-zerbitzuaren helburu nagusia oriotarrei kirola egiteko aukera ematea dela, kirola adiera zabalenean ulertuta, baita jarduera fisiko ez-erregularizatu gisa ere, eta, nolanahi ere, Orioko udalerriko kirol-instalazioak erabiltzean jasagarritasun ekonomiko eta finantzarioa ahalbidetuta.

## **HAMAIKA- ESKARIAK ETA GALDERAK**

Ez zen eskari edo galderarik izan.



# ORIOKUDALA

Udalbatzarraren akta

Ezohiko bilkura, 2024ko

urriaren 30ekoa. Orri-zk. 13

Jarraian, “Orioko Herritar Foroa” izeneko erakundeak, ia 10 urteko ibilbide profesionalaren ondoren, Orioko Udalari eskerrak emateko igorritako idatzi bat irakurri da.

Bestalde, Anuska Esnal alkateak (EH-Bildu) eta Noemi Ostolaza zinegotziak (EAJ-PNV) idatzi bateratu bat irakurri dute, “Orioko Herritar Foroa” izeneko erakundearen ibilbide profesionala eskertzeko.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, alkateak osoko bilkura bukatutzat emateko agindu du, gaurko arratsaldeko bederatziak eta hamabost direla. Nik, Udaleko idazkariak, **ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.**

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**